



Gipuzkoako Foru Aldundia

5 DAYS TO DANCE

Dantzako profesional eta irakasleentzako prestakuntza-ikastaroan parte hartzeko deialdia

Donostia 2016 Fundazioa, bere **bitartekaritza-programaren** bitartez, eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** dantza laguntzeko **Dantzagunea** zerbitzua elkartu egin dira **5 Days to dance** proiektua sustatzeko. Ikastetxeetan dantza komunitarioa lantzeko osatu da proposamen hau, Bakearen Itsasargiaren barruan, eta “DE LoopERS-dance2gether” dantza-konpainiak garatzen du –**Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt** dantzari eta koreografoak dira aipatutako konpainiako kideak.

ZER DA ‘5 DAYS TO DANCE’?:

“Pertsonak elkarrekin dantzatzeko gai badira, elkarrekin bizitzeko gai ere badira” da proiektu pedagogiko honen oinarrian dagoen esakunea. Dantzak ikasleengan eragin positiboa duela eta ikasleen garapen pertsonala eta soziala aberasten duela dioen ideiatik abiatuta osatu da **5 Days to dance** proiektua. Irakas-aste batean zehar, parte hartzera animatzen den ikastetxeak ikasketa-plana eten egingo du, artistekin batera oinarritzko koreografia bat prestatzeko. Ondoren, ikastetxean bertan jendaurrean erakutsiko da prestatutako lana. Ondorengo estekan Donostiako Larramendi ikastetxean garatutako esperientzia laburbiltzen duen dokumentala ikus daiteke: <http://vimeo.com/113856780>

Donostia 2016k dantza komunitarioko ekimen hau lurraldeko 4 ikastetxetan garatzea aurreikusitako du, **2015eko martxotik ekainera bitartean; gainera, 2015/2016 ikasturtean beste lau ikastetxetan garatzea aurreikusitako du.**

Dantza-proiektu hau koreografia baten sorkuntza eragiteko bitarteko gisa planteatzen da, non ikasle bakoitzak ikaskuntza-prozesu bat gauzatzen duen bere gorputzaren zein besteekiko harremanen inguruan. Proposamen honek ikasle bakoitzak bere burua ezagutzeko eta bere mugak eta helburuak lantzeko balio du, eta, era berean, erronka txikiak/handiak gainditzen eta orain arte ezezagunak ziren eta berezkoak dituzten alderdiak ezagutzen laguntzen die ikasleei. Esperientzia artistiko eta sentzorial honen bitartez, gazteei mundu berri bat irekitzen zaie, gizabanako gisa duten potentziala indartzeko, nork bere buruarengan duen konfiantza sustatzeko eta taldeko komunikazioan hobera egiteko, izan ere, egozten zaizkien gizarte-rolak haustera eta zalantzan jartzera animatzen dira gazteak, gizabanako gisa sendotzen ari diren bizitzako etapan.

IKASTAROAREN EDUKIA:

Deialdi honek dantzako profesionaleri (dantzari eta koreografoei) zein irakaskuntzakoei (irakasleei) gonbidapena egiten die **5 Days To dance** proiektuaren lehen etapan parte hartzeko. Hain zuzen, **dantza komunitarioari buruzko prestakuntza-ikastaro bat eskaintzen zaie eta aukera ematen zaie,aldi berean, DE LoopERS konpainiaren metodologia eta esperientzia zabala ezagutzeko eta horrelako proiektu bat ikastetxe batean garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta estrategiak ezagutzeko.**

Ikastaroan parte hartzen duten pertsonak, baldin eta erakutsitako motibazioa eta gaitasunak programarekin bat badatoz, Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt artistekin batera lan egin ahal izango dute ikastetxeetan aurreikusitako prozesuetan, eta modu horretara, lehen pertsonan biziko dute eskola-esparruko dantza komunitarioaren inguruko esperientzia erreal bat eta prestakuntza jasoko dute etorkizunera begira antzeko esperientzietan parte hartzeko.



Gipuzkoako Foru Aldundia

NORI ZUZENTZEN ZAIO?

Ikastaro hau **dantzari eta koreografo profesionalentzat eta ikastetxeetako irakasleentzat da, 12 orduko iraupena edukiko du (otsailaren 13a, 14a eta 15a, 16:00etatik 20:00etara) eta Dantzagunea** zentroaren 2. aretoan egingo da (Pelotari kalea z/g (Niessen eraikina) - Erretereria 20100).

Ingelesez eta gaztelaniaz eskainiko da ikastaroa; hala ere, aipatutako hizkuntzetako bat ez ezagutzea ez da oztopo izango ikastaroan parte hartzeko eta eskaintzen den edukia ondo ulertzeko.

IZENA EMATEKO MODUA ETA EPEA

Prestakuntza-ikastaroan parte hartu nahi duten pertsonak **2015eko urtarrilaren 28a** baino lehen (azken eguna) izena eman behar dute; horretarako, **ondoren aipatutako dokumentazioa** bidali behar dute helbide honetara: jaione_cabaleiro@dss2016.eu

- Izena emateko orria
- Curriculum pertsonal laburra
- Arrazoiak azaltzeko gutun bat
- Ordainketaren frogagiria

Izena emateko **30€** ordaindu behar dira eta diru hori itzuli egingo da parte-hartzaileak ikastaroan parte hartu duela justifikatzean.

Ondoren adierazi da aipatutako ordainketa egiteko banku-kontua. Ordainketa egitean, **“5 Days ikastaroa” eta ikaslearen izena eta abizena** adieraziko dira:

(I.B.A.N.): ES22 2095 0611 0710 6432 8791 DSS2016 Fundazioa

Plaza-kopurua mugatuta dago (25).

IKASTAROAREN PROGRAMA:

1. EGUNA (otsailaren 13a / 16:00-20:00)

1. zatia. 16:00-18:00

- Wilfried eta Amayarekin elkartu eta aurkezpena (15 minutu)
- Beroketa, dantza garaikidea (45 minutu)
- Dantza komunitarioko ariketak taldean (30 minutu)
- Taldearen aurkezpena (15 minutu)

ETENALDIA (15 minutu)

2. zatia. 18:15- 20:00

- “Five days to dance“ filma (75 minutu)
- Iritzien trukea (30 minutu)



Gipuzkoako Foru Aldundia

2. EGUNA (otsailaren 14a / 16:00-20:00)

1. zatia. 16:00-18:00

- Beroketa, dantza garaikidea (45 minutu)
- Dantza komunitarioko ariketak, inprobisazioak, konposizioa taldean (60 minutu)
- Egindako lanaren aurkezpena (15 minutu)

ETENALDIA (15 minutu)

2. zatia. 18:15- 20:00

Mahai-ingurua. Topaketa informala eta irekia (edukiera bete arte). DELooPERS konpainiarekin batera ikastetxeetan “Five Days to dance” proiektu pedagogikoan eta DSS2016ekin batera hezkuntza-esparruan dantzako bitartekaritza-prozesuetan dagoeneko parte hartu duten eragileek beren esperientzia, ikuspegia, lorpenak eta izandako zailtasunak azalduko dituzte lehen pertsonan.

Jarduera honekin horrelako ezaugarriak dituen prozesuaren ikuspegi orokor bat eskaini nahi da prozesuan nahastuta egon diren, eta beharrezkoak diren, pertsonen bitartez, bakoitza bere esparrutik. Horrez gain, Wilfriedek eta Amayak eskoletan dantza komunitarioaren inguruan garatzen duten metodologiaren adibide praktikoak ezagutuko ditugu eta zalantzak eta galderak argitzeko denbora egongo da.

3. EGUNA (otsailaren 15a / 16:00-20:00)

1. zatia. 16:00-18:00

- Beroketa, dantza garaikidea (45 minutu)
- Dantza komunitarioko ariketak, inprobisazioak, konposizioa taldean (60 minutu)
- Egindako lanaren aurkezpena (15 minutu)

ETENALDIA (15 minutu)

2. zatia. 18:15- 20:00

- Aurkezpen bateratu bat lantzea, aurretik landutako elementu guztiekin (75 minutu)
- Amaierako ebaluazioa (30 minutu)

Eranskinak

- 1. eranskina – CV Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt**
- 2. eranskina – Dance2gether dantza komunitarioko proiektuak**
- 3. eranskina - Izena emateko orria**

Informazio gehiago:

943 48 33 44 (Luz. 9411)

670 062 657 (2015eko urtarrilaren 7tik aurrera bi telefonoak erabilgarri, 09:00 – 14:00)

jaione_cabaleiro@dss2016.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia

1. eranskina – CV Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt

Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt Bremen (Alemania) bizi eta lan egiten dute. Bertan ezagutu zuten elkar dantzari profesional gisa, *Bremer Tanztheater* dantza-antzerkiko konpainian..

Wilfried Holandan jaio zen eta pantomin, dantzari eta koreografo gisa prestatu zen eta lan egiten zuen bertan. Chicago, Londres eta Essen en espezializatu zen dantza modernoan eta koreografian.

1993an World Dance Congress saria jaso zuen San Frantziskon, dantza espresionistaren hainbat pieza zaharren inguruan egin zituen birkonposizioei esker.

Holandako eta Alemaniako hainbat dantza-konpainiatan dantzari gisa lan egin ondoren, 1995ean Bremer Tanztheater konpainian sartu zen.

2000tik aurrera haur eta gazteentzako lan egiten hasi zen eta 2003an *DE LoopERS Tanztheater* dantza-antzerkiko konpainia sortu zuen. Aldi berean, *Dance4Life* eta *ACT* nazioarteko proiektua abian jarri eta zuzendu zuen Bremen eta Europako hainbat herrialdetan, Korean eta Palestinan hainbat proiektutan parte hartu zuen haur eta gazteekin.

Urte haietan ezagutu zuen *Royston Maldoom* dantza komunitarioko lana eta profesionalak ez ziren taldeekin lan egiteko zuen pasioa eskaini zuen bertan. Garai hartan hasi zen orkestrekin lankidetzan, dantza-emanaldietan.

Amaya Donostian jaio zen eta haurra zela ikasi zuen balleta. Betidanik dantzari profesional bihurtu nahi izan zuen eta dantzarekiko duen pasioaz une oro gozatzen du, azken aldia izango balitz bezala!

Dantza modernoa ikasi zuen Bartzelonako *Institut del Teatre* izeneko institutuan; dantza garaikidea ikasi zuen Esseneko *Folkwang Hochschule* eskolan eta dantza espresionista landu zuen *Jean Cebron* eta *Pina*

1992tik 2007ra *Susanne Linke* eta *Urs Dietrich* koreografoekin lan egin zuen Essen eta 1994tik Bremen.

2014ko apirilean *Dedicación a la Danza* saria eman zion *Gipuzkoako Dantza Profesionales Elkarteak*.

2008tik batera lan egiten dute **Wilfriedek eta Amayak** elkarrekin sortutako *DE LoopERS-Tanztheater* dantza-konpainian, koreografo eta dantzari gisa, edo *DE-LoopERS-Dance2gether* eta *Five days to dance* dantza komunitarioko proiektuak garatzen; horrez gain, dantza-antzerkiko proiektu desberdinetan parte hartzen dute.

Azken urteetan haur, gazte eta helduekin lan egiteko aukerarekin gozatzen ari dira. Helburutzat dute dantza egiteko plazera eta eszenategi batean dantzatzekoa kutsatzea, zoriontsu izateko eta, era berean, gorputza baliatuz gauzak adierazteko eta dantzaren bitartez gainerako parte-hartzaileekin eta publikoarekin poztasuna eta maitasuna helarazteko modu zoragarri bat dela uste baitute.

2. eranskina – “Dance2gether” dantza komunitarioko proiektuak

2014

"Herbsttanzakademie 2014", 100 parte-hartzaile, haurrak, gazteak eta helduak.

Bi talde. Urriaren 27tik azaroaren 7ra.

"Picasso´s Schritte" Kunsthalle Bremen museoa, 20 gazterekin.

"Five Days to dance": proiektuak eskoletan

- Donostiako Santo Tomas Lizeoa, 118 neska-mutil.

- "Wilhelm Olpers Schule" Bremeneko eskola. 2014-2015 ikasturteko proiektua. Lau asteko zikloa.

8. mailako 120 neska-mutilentzat.

- "Tanz an der Bürgermeister-Smidt-Schule" 1. mailatik 4.era arteko 120 neska-mutil.

- "Schule am Barkhof", "Bremer Philharmoniker" orkestrarekin lankidetzan; 6. mailako 60 neska-mutilekin.

- Schulzentrum Oyten, Niedersachsen-en. "Move2gether", DBHko 2., 3. eta 4. mailako 200 nerabe.

- Pasaia-Lezo Lizeoa (Gipuzkoa), DBHko 3. mailako 80 nerabe, "IKUSKA" jaialdiaren barruan.

- Egape Ikastola, Urnieta, Gipuzkoa, DBHko 3. eta 4. mailako 80 nerabe.

"La voz del silencio" proiektu komunitarioa, Rivasen (Madril), 6 urtetik 55 urtera arteko 60 parte-hartzaileekin.

"Kunst bewegt", Kunsthalle Bremen museoa. "De Loopers-dance2gether" proiektuekin azken hiru urteetan egindako lankidetzaren argazkien erakusketa.

"Winterblumen" gizarateratzeko proiektua, esperientzia psikiatrikoa duten edo ez duten 25 heldurekin.

2013

"Perspektiven", Bremeneko 6 urtetik 70 urtera arteko 90 parte-hartzaileekin (estreinaldia 2014ko urtarrilean). Musika: Strawinsky, Gorecky, Joan Valent.

Lankidetzan: Bremen Nord Kultur Bulegoa, Kunsthalle Bremen museoa, Jacobs - University, Theater Bremen eta Unicef.

"Five Days to dance" dokumentala

- Bremeneko eskolako 14-16 urteko 60 neraberekin.

- Donostiako eskola bateko 14-16 urteko 90 neraberekin.

Orkan", Ganspe-ko eskola baten 6-10 urteko 100 neska-mutilekin.

2012

"Hundertwasser-Hunderttänzer" (estreinaldia 2013ko urtarrilean), Bremeneko 7-72 urteko 100 parte-hartzaileekin. Musika: Karl Jenkins - Joan Valent. Lankidetzan: Bremen Nord Kultur Bulegoa, Kunsthalle Bremen museoa, Jacobs - University, Theater Bremen.

"Transfer", Osterholz Schambeck eskolako 15-16 urteko 100 gazterekin.

"dance2gether", Osterholz Schambeck eskola bateko 12-13 urteko 120 neska-mutilekin..

"Dance anywhere anytime", 4 proiektu Bremeneko eskoletan, 13-16 urteko nerabeekin, 60-180 parte-hartzailek osatutako taldeekin, Quartier GmbH-rekin lankidetzan.



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN



dantza
gunea



Gipuzkoako Foru Aldundia

2011

"Edvard bewegt" (estreinaldia 2012ko urtarrilean), Bremeneko 7-73 urteko 48 parte-hartzailerekin. Musika: Sinfonia 3 mugimendutan - Igor Stravinsky. Lankidetzak: Bremen Nord Kultur Bulegoa eta Kunsthalle Bremen museoa.

"Eskola arrazakeriarik gabe", Osterholz Schambeck-eko eskola bateko 13-16 urteko 60 gazterekin.

"Dance anywhere anytime", 4 proiektu Bremeneko eskoletan, 13-16 urteko nerabeekin, 70-150 parte-hartzailek osatutako taldeekin. Quartier GmbH-rekin lankidetzan.

2010

"Wo der Wind mich hinträgt" (estreinaldia 2011ko urtarrilean), Bremen (D), Oldenburg (D) eta Groningen-eko (NL) 10-19 urteko 55 neska-mutil eta neraberekin, Musika: Fearful symmetries - John Adams.

"Petrushka"

- Bremeneko eskola bateko 35 neska-mutilekin.

- Kieleko eskola bateko 8-10 urteko 45 neska-mutilekin.

"Dance anywhere anytime", 6 proiektu Bremen eta Oldenburg-eko eskoletan, 13-16 urteko nerabeekin, 70-160 parte-hartzailek osatutako taldeekin. Quartier GmbH-rekin lankidetzan.

2009

"Schritte", Bremeneko 12-16 urteko 30 neraberekin; Michael Nyman MGV-ren musikarekin dantza egin zuten.

"Frankenstein", Kieleko eskola bateko 8-10 urteko 65 neska-mutilekin egindako koreografia.

"Dance anywhere anytime", 8 proiektu Bremeneko eskoletan, 13-16 urteko nerabeekin eta 65-150 parte-hartzailek osatutako taldeekin. Quartier GmbH eta Dance4life-ekin lankidetzan.

2008

"Frankenstein"

- Bremeneko eskola bateko 10-11 urteko 35 neska-mutilekin.

- Vienako eskola bateko 8-10 urteko 45 neska-mutilek HK Gruber obraren konpositore eta zuzendariarekin dantza egin zuten, Vienako Orkestra Filarmonikoarekin batera.

"Udaberria udazkenean", *Royston Maldoom* koreografoarena. Bremeneko lau eskolatako 8-16 urteko 85 neska-mutilekin eta neraberekin. Lankidetzak: Bremeneko Deutsche Kammerphilharmonie orkestrarekin eta Quartier GmbH-rekin.

"Dance4life", 6 proiektu Bremeneko eskoletan, 13-16 urteko nerabeekin, 70-130 parte-hartzailek osatutako taldeekin, Quartier GmbH eta Dance4life-ekin lankidetzan.

2007

"Europa Kinderland", Europar Batasuneko kide diren 27 estatueta 10 urteko 54 neska-mutilekin. Rolf Zukowski abeslari eta konpositore alemanarekin eta Deutsche Kammerphilharmonie Bremen orkestrarekin lankidetzan.

EBko Kanpo Harremanetarako Ministerioko ministroen gailurrean egin, Brementen

"Ohne aber mit". Bremeneko 3 eskoletarako koreografia bat, 14-15 urteko 90 neraberekin. Deutsche Kammerphilharmonie Bremen orkestra. Musika: Ganbera Sinfonia - John Adams

"Dance4life", 7 proiektu Bremen eta Bremerhaven-eko eskoletan nerabeekin, Quartier eta Dance4life-ekin lankidetzan.



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN



dantza
gunea



Gipuzkoako Foru Aldundia

2006

"**Das Treffen**", Royston Maldoom koreografoarena. Bremeneko eskola bateko 13-15 urteko 100 neraberekin. Kammerphilharmonie Bremen orkestrarekin eta Quartier GmbH-rekin batera egindako produkzioa.

"**DanceLife**", 7 proiektu Bremeneko eskoletan nerabeekin, Dance4life eta Quartier-ekin lankidetzan.